IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IBARRAKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Ibarrako udaletxean, 2026ko azaroaren 13an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapirain Lizarribar, Ibarrako Udaleko alkate-lehendakaria, Ibarrako Udaleko idazkari Jon Telleria Zalduendok lagunduta.

Eta bestetik, Manex Urruzola Arrate, 72484861Q NAN zenbakia duena, Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen legezko ordezkaria, G20371456 IFZ duen elkartearen izenean eta ordezkaritzan.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluak xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen izenean eta ordezkaritzan, elkartearen legezko ordezkari gisa.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak 2026ko uztailaren 13an Ibarrako Udalean aurkeztutako eskaeraren bidez —2026/2167 sarrera-erregistro zenbakiarekin—, 2026an Ibarran euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak garatzeko lankidetza-hitzarmena formalizatzea eskatu zuela.

Eskaerarekin batera, 2026ko jarduera-programazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera.
Jarduerak:

1. Antolaketa eta koordinazioa:

1.1. Ibarrako Euskara Batzordean parte hartu eta bertan Galtzaundiri esleitutako lanak kudeatu.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

1.2. Ibarrako udal-arduradunekin eta Euskara Zerbitzuko buruarekin harreman jarraitua izan eta elkarlana erraztu.

1.3. Euskara-teknikarien batzordean parte hartu, eskualdeko proiektuak landu eta hartutako erantzukizunak bete.

1.4. Tolosaldeko Euskararen Mahaia koordinatu eta gidatu, UEMArekin elkarlanean.

1.5. Euskal Herriko euskara-elkarteekin koordinatu, Taupa euskaltzaleen mugimenduaren baitan.

2. Aktibazioa: E365E Markoa

2.1. Oinarri soziala zabaldu eta dinamizatu: herriko boluntariotza sustatu, Galtzaundikide berriak erakarri, euskaltzaleen arteko harremanak indartu eta aktibazio sozialerako jarduerak antolatu.

2.2. Eusfera: 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei eta guraso-eginkizuna betetzen duten helduei zuzendutako egitasmoa Tolosaldean garatu, haurren ingurunean euskararen erabilera sustatzeko.

2.3. Hizkuntza-eskubideak: herritarrak hizkuntza-eskubideen inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak garatu, saltoki handiei begira.

2.4. Euskararen Nazioarteko Eguna: eskualdeko jarduera-proposamena prestatu eta koordinatu.

2.5. Normalizazioa: herriko jaietarako komunikazio-kanpaina prestatu eta euskarriak herritarren eta jai-batzordeen eskura jarri.

2.6. Hezkuntza: eskualdeko hezkuntza-sektoreko mahaia dinamizatu eta ikasleen hizkuntza-ohituretan eragiteko Eusle proiektua garatu DBH duten ikastetxeetan.

2.7. Hezkuntza ez-formala: gazteei zuzendutako «Bota erantzuna!» lehiaketa antolatu eskualdean.

2.8. Merkataritza: hirugarren sektorean euskararen erabilera indartzeko bisitak eta lanketa egin, okindegiekin berariazko jarduera garatuz.

3. Alfabetatzea-euskalduntzea

3.1. Koordinazio Mahaia: eskualdeko euskalduntze-eskaintza eta -eskaria aztertzeko eta ekintza bateratuak diseinatzeko koordinazio-gunean parte hartu, Aitzol, AEK, UEMA eta euskara-teknikariekin elkarlanean, eta bertan adostutako eginkizunak bete.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

3.2. Mintzalaguna: euskararen ahozko erabilera praktikatzeko programa sustatu, eskualdeko gainerako taldeekin koordinatu, izena emateko garaian ekitaldi bateratua antolatu eta parte-hartzaileen arteko harremanak indartzeko jarduerak garatu.

4. Sustapena:

4.1. Kultur eskaintzaren zabalkundea: Tolosaldeko sortzaileen katalogoa landu eta eskualdeko kultur eskaintza sarean zabaldu.

4.2. Ibarra-Galtzakomik komiki lehiaketa: euskarazko komikigintza Euskal Herrian sustatzeko Ibarra-Galtzakomik komiki lehiaketa antolatu.

5. Jakintza

5.1. Ikerketak: Tolosaldeko kirol-taldeen inguruko ikerketa egin eta, UEMArekin koordinatuta, eskualdeko herri guztietan euskararen kale-erabileraren neurketak egiteko boluntarioak lortu.

5.2. Formakuntza: herritarren hizkuntza-kontzientzia eta trebakuntza sustatzeko hitzaldiak, ikastaroak eta bestelako jarduerak antolatu, adituen ekarpenak ezagutaraziz eta hausnarketarako nahiz iritzi-trukerako guneak sortuz.

5.3. Dibulgazioa: Tolosaldeko Euskararen Historia Sozialari buruzko ikerketa zabaltzeko ekimenak garatu, ikastetxeetan unitate didaktikoa zabaldu eta Galtzaundi aldizkaria digitalizatu, herritarren eskura sarean jartzeko.

6. Zeharkakotasuna: euskaltzale komunitatea trinkotzea

6.1 Euskararen normalizazioa: euskararen normalizazioa sustatzeko antolatzen diren ekimenetan parte hartu eta lankidetza eskaini, antolakuntzan zuzenean parte hartuz edo bitartekaritza-lanak eginez. Eskualdeko Korrika batzordeari laguntza eta beharrezko bitartekoak eskaini.

6.2. Elkartegintza: gizarte-mugimenduekin elkarlana sustatu, besteak beste, gazte-mugimenduekin, etorkinen taldeekin, mugimendu feministarekin eta aniztasun funtzionalaren arloan diharduten eragileekin.

6.3. Komunikazioa: eskualdeko euskaltzaleen komunitatea indartzeko komunikazio-lana garatu, webgunearen eta sare sozialen aukerak baliatuz, eta horretarako beharrezko tresnak eskaini.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

II.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, espedientean jasotako ziurtagirien arabera.

III.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak adierazten du ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debeku-egoeretan, eta egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, hala badagokio.

IV.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen estatutuetan jasotako helburuak bat datozela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedearekin, bereziki euskararen erabilera sustatzearekin eta hizkuntza-normalizazioa indartzearekin.

V.- Ibarrako Udalaren 2026ko aurrekontuan, 1 10.481.11.335.00 2026 aurrekontu-partidan, 18.000 euroko kreditua jasota dagoela Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteari zuzendutako dirulaguntza izendun gisa, 2026ko jarduera-programa garatzeko.

VI.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluak udalerrien berezko eskumenen artean kulturaren sustapena jasotzen duela.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluak udalerrien eskumen propioak zehazten dituela; horien artean, 17.1.20 artikuluak kulturaren sustapena eta 17.1.26 artikuluak euskararen erabilera sustatzeko politikak garatzea jasotzen dituztela.

Eskumen horien esparruan, Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak garatzen dituen jarduerek Ibarran euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen laguntzen dutela, herritarren parte-hartzea eta eskualdeko euskalgintzako eragileen arteko lankidetza indartuz.

VII.- Lankidetza-hitzarmen hau honako arau hauen babesean formalizatzen dela: urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

VIII.- Ibarrako Udalbatzak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024–2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dagoela Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteari zuzendutako dirulaguntza izenduna. Plan hori 2024ko apirilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Dirulaguntza Ibarrako Udalaren 2026ko aurrekontuan izendun gisa jasota dagoenez, zuzenean emateko prozedura aplikatuko dela, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

22.2.a) artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan xedatutakoaren arabera.

IX.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteari 18.000 euroko dirulaguntza izenduna emateko eta dagokion lankidetza-hitzarmena onartzeko organo eskuduna Ibarrako Udaleko alkate-lehendakaria dela.

X.- Ibarrako Udaleko alkate-lehendakariak, 2026ko azaroaren 12ko 721/2026 zenbakiko dekretuaren bidez, Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteari 2026ko jarduera-programa garatzeko 18.000 euroko dirulaguntza izenduna ematea eta horretarako lankidetza-hitzarmena onartzea ebatzi duela.

XI.- Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteari emandako dirulaguntza Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratuko dela, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Ibarrako Udalaren eta Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen (IFZ: G20371456) arteko lankidetza-esparru egonkorra ezartzea, Ibarran euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-normalizazioa indartzeko.

Lankidetza horren bidez, elkarteak 2026rako aurkeztutako jarduera-programa garatzen lagunduko du Ibarrako Udalak, herritarren parte-hartzea, euskaltzaleen komunitatearen aktibazioa eta eskualdeko eragileen arteko elkarlana sustatuz.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen bidez diruz lagunduko dira Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak 2026ko jarduera-programaren barruan garatuko dituen ekintzak, hitzarmen honen «AZALDU DUTE» ataleko I. puntuan zehaztutakoak.

Jarduerak honako sei lan-ildo hauetan antolatzen dira:

1. Antolaketa eta koordinazioa.
2. Aktibazioa: E365E markoa.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

3. Alfabetatzea-euskalduntzea.
4. Sustapena.
5. Jakintza.
6. Zeharkakotasuna: euskaltzaleen komunitatea trinkotzea.

Dirulaguntzaren bidez finantzatutako gastuek jarduera horiekin lotura zuzena izan beharko dute, eta hitzarmen honetan zehaztutako baldintzen arabera justifikatuko dira.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak 18.000 euroko dirulaguntza izendunaren bidez parte hartuko du Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen 2026ko jarduera-programaren finantzaketan. Zenbateko hori Ibarrako Udalaren 2026ko aurrekontuko 1 10.481.11.335.00 2026 partidaren kontura finantzatuko da.

Elkarteak aurkeztutako jarduera-programaren aurrekontu osoa 90.000 eurokoa da. Ibarrako Udalaren ekarpena aurrekontu horren % 20 da.

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, betiere jasotako finantzaketa guztien baturak diruz lagundutako jardueren benetako kostua gainditzen ez badu.

Jardueren azken kostua aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, edo jasotako finantzaketa osoak kostu hori gainditzen badu, dagokion doikuntza egingo da, aplikagarria den araudiaren eta hitzarmen honetan ezarritako baldintzen arabera.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.
Emandako dirulaguntzaren erabilera behar bezala justifikatu beharko zaio Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailari, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. kapituluan eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira indarrean dagoen legerian eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Zehazki, gastuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Diruz lagundutako jardueren izaerarekin lotura zuzena izatea eta jarduera horiek garatzeko beharrezkoak izatea.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

- 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egitea.
- Merkatuko balioarekin bat etortzea.
- Justifikatzeko epea amaitu aurretik benetan ordainduta egotea, aplikagarria den araudian aurreikusitako salbuespenak alde batera utzi gabe.
-

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu publikoen legerian kontratu txikietarako ezarritako mugak gainditzen baditu, elkarte onuradunak gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu.

Betebehar hori salbuetsita egongo da, gastuaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan zerbitzua eman edo ondasuna hornitu dezaketen behar adina erakunde ez daudenean, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin denean. Salbuespen horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak dirulaguntzaren bidez finantzatutako jarduerak gauzatu direla eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak eta helburuak bete direla justifikatu beharko du, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan, haren Erregelamenduan eta Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. kapituluan ezarritakoaren arabera.

Justifikazio ekonomikoa hitzarmen honetan jasotako sei jarduera-ildoen arabera aurkeztuko da. Jarduera bakoitzaren gastu osoa eta Ibarrako Udalaren dirulaguntzari egotzitako zenbatekoa zehaztu beharko dira, bien arteko lotura egiaztatzeko.

Dirulaguntza justifikatzeko, «justifikazio-kontua frogagiriak aurkeztuta» modalitatea erabiliko da, eta gutxienez honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Jarduera-memoria: egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzen betetze-maila jasoko ditu. Ahal den neurrian, parte-hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira.

b) Justifikazio ekonomikoa: egindako jardueren kostuak zehaztuko dira, hitzarmenaren 1. eranskina behar bezala beteta, eta diruz lagundutako gastuei dagozkien frogagiriekin batera.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epea 2027ko urtarrilaren 31n amaituko da.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa: emandako dirulaguntzaren % 70, hau da, 12.600 euro, aurrerakin gisa ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren. Elkarteak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak espedientean jasota daude.
b) Bigarren ordainketa: gainerako % 30a, hau da, 5.400 euro, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren ordainduko da, Euskara eta Hezkuntza Sailak aldeko txostena egin ondoren.

Ordainketak egiteko, elkarteak behar bezala justifikatuta izan beharko ditu Ibarrako Udalak aurretik emandako dirulaguntzak, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.

Egindako ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (BDNS) jakinaraziko zaizkio, ordainketa egin eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak Ibarrako Udalaren laguntza ekonomikoa behar bezala adierazi beharko du hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueren komunikazio- eta zabalkunde-euskarrietan.

Horretarako, Ibarrako Udalaren irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko aipamena jasoko du jardueren berri emateko erabiltzen diren euskarrietan, hala nola karteletan, argitalpenetan, webguneetan, sare sozialetan eta ikus-entzunezko materialetan. Udalaren ekarpenari gainerako finantzaketa-iturriei ematen zaien ikusgarritasun bera emango zaio.

Era berean, elkarteak konpromisoa hartzen du Ibarrako Udalak antolatutako edo sustatutako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-jardueretan parte hartzeko, jarduera horiek elkartearen helburuekin eta jardun-eremuarekin bat datozenean.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueretan, ahozko zein idatzizko komunikazioa euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez bi hizkuntza ofizialetan egingo da, Ibarrako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzan ezarritakoaren arabera.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

Irizpide hori aplikatuko da, besteak beste, megafonian, karteletan, oharretan, argitalpenetan, webguneetan, sare sozialetan eta jardueren zabalkunderako erabiltzen diren gainerako euskarrietan.

Jardueraren izaerak edo hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean, komunikazioa euskaraz egingo da.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa errespetatu beharko du hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak antolatzean eta garatzean.

Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Elkartearen helburuak, antolamendua, funtzionamendua eta jarduerak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin bat etortzea.
- Jardueretan eta komunikazio-euskarrietan hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzea.
- Jardueretan parte hartzeko aukera-berdintasuna bermatzea, sexuaren araberako bereizkeriarik egin gabe.
- Berdintasunaren arloan aplikagarriak diren legezko betebeharrak betetzea.

Era berean, elkarteak dirulaguntzen onuradun izateko berdintasunaren arloan ezarritako debekuak eta betekizunak errespetatu beharko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Baldintza horiek betetzeko, kontuan hartuko dira martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmena iraungiko da bere xede diren jarduerak bete eta indarraldia amaitzen denean, edo urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako suntsiarazpen-arrazoiren bat gertatzen denean.

Hitzarmena suntsiaraziz gero, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera zehaztuko dira horren ondorioak, bereziki diruz lagundutako jardueren betetze-mailari, justifikazioari eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoen itzulketari dagokienez.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

Ibarrako Udalak dirulaguntzaren erabileraren eta hitzarmen honetan ezarritako baldintzen betetzearen jarraipena eta kontrola egingo ditu, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak kontrol- eta jarraipen-lanak egiten dituzten udal-langileei beharrezko lankidetza eskainiko die, eta eskatzen zaizkion agiriak, justifikazio ekonomikoak eta gainerako informazioa haien eskura jarriko ditu.

Kontrol- eta jarraipen-jarduketetan hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bete ez direla egiaztatzen bada, aplikagarria den araudiaren arabera dagozkion neurriak hartuko dira. Hala badagokio, jasotako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzultzeko betebeharra ezarriko da, edo ordaintzeke dagoen zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamalaugarrena.- Lan eta zerga legeria.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak indarrean dagoen legeria bete beharko du hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak gauzatzean, bereziki lan-harremanei, zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzari dagokienez.

Elkarteak bere gain hartuko ditu jarduerak antolatzearen eta gauzatzearen ondorioz dagozkion legezko betebeharrak.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertan jasotako klausulek eta aplikagarria den administrazio-araudiak arautuko dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 6. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzaren onuradun izateko legezko debekuren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu du, eta dokumentu hori espedientean jasota dago.

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan berariaz arautu gabeko alderdiei honako arau hauetan xedatutakoa aplikatuko zaie:

- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemezortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Ibarrako Udalak eta Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen esparruan tratatzen dituzten datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzeko, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak berariazko baimena ematen dio Ibarrako Udalari, hitzarmen honen bidez araututako dirulaguntza jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak zuzenean eskuratzeko administrazio eta erakunde publiko eskudunetatik, aplikagarria den araudiaren arabera.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako toki eta egunean. Udal-idazkariak egintzaren fede ematen du.

ALKATEA	**GALTZAUNDI TOLOSALDEKO EUSKALTZALEEN ELKARTEA**
Igor Zapirain Lizarribar	**Manex Urruzola Arrate**

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak:_____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____(Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	**€**
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO - **Ibarrako udala** - **Gainontzekoak**	**€**

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra (Adibidea)

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	

Justifikatutako gastuak zehaztuta (ADIBIDEA)

AGIRI MOTA TIPO DOCUMENTO	**ZK.**	**DATA**	**IGORLEA EDO JASOTZAILEA EMISOR O RECEPTOR**	**CIF / DNI**	**KONTZEPTUA**	**BEZ-a €**	**IRPF %**	**€**
GUZTIRA								

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioko erreziboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituena, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen petsona.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objetua
7. BEZ-a: Faktura eta Tiketen kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturetan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketa

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

1. Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolanahi ere, prest nagoela Ibarrako Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.
2. Elkarteak diruz lagundutako jarduerak iraun duten bitartean erantzunkizun zibileko aseguru-poliza indarrean izan duela.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

xxxxxxxxxxxxx

Izena Abizenak……xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx……

Lekua eta data: .....n, 20….ko .....ren .....an

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarrako Udala da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.

ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.-ERANSKINA
HIRUGARRENEI ALTA

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5

Ordainketak bideratzeko datuak

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA
ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO

A **HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

(1) **NAN/IFZ**
DNI/CIF .....

(2) **Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena**
Nombre y dos apellidos / Razón Social .....
.....

Helbidea
Domicilio.....

Posta kodea **Herria**
Código postal..... Población .....

Herrialdea
País.....

B **BANKUAREN DATUAK**
DATOS BANCARIOS

(1) **Bankua** ☐☐☐☐ _____
Banco

(2) **Agentzia** ☐☐☐☐ _____
Agencia

(3) **KD** ☐☐ **K/korrontea** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
DC C/Corriente

(4) **Jabea**
Titular
OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar da izan.
NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

C **Bankuaren adostasuna**
Conforme banco
Sinadura eta zigilua
Sello y firma

D **Hirugarrenaren adostasuna**
Conforme tercero
Sinadura eta zigilua
Sello y firma

E **Sail edo Erakundearen onespena**
Vº Bº Dpto. u Organismo
Baimendutako sinadura eta zigilua
Sello y firma autorizada

Data / Fecha

EKS | CSV: ESKUce2b6d41-b57a-4e60-a545-510f2a1b86d7
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210